



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2016ko URTARRILAREN 26an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2016ko urtarrilaren 26an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Onintza Gorostidi Murua  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Uxue Etxebeste Eizagirre  
Xabier Mugika Letamendia  
Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**  
-2015eko abenduaren 15ean egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Oilategitik aurkezturiko 2015eko jasotako diru-laguntzaren kitapenaren azterketa, hala bada.**
5. **Alkizako Arau Subsidiarioetako U.E.U.5.1 Nekazalturismoari lotutako lau apartamentu turistikoko eraikinaren lehen okupazio baimena eta jarduera eta irekiera baimena, A.M.**
6. **Beste batzuk.**
7. **Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA** **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2015eko abenduaren 15eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

### **BIGARREN PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

48/2015 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 17koa, Alkizako udaleko lehen Alkateordea den Koldobika Jauregi zinegotziari Alkate moduan ditudan funtzio eta atribuzio guztiak eskuordetzea, 2015eko abenduaren 22tik 2016ko urtarrilaren 6ra bitartean, ebazten duena.

49/2015 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 21koa, Alkizako udaleko 2015urteko bigarren goi-erlekuaren zabor tasaren udal errolda onartu eta ordainketa burutzeko borondatezko epea irekitzea, ebazten duena.

50/2015 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 23koa, J.D.J. Jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, VI-3171- J ibilgailuari dagokion trakzio mekanikodun zergaren itzulera, ibilgailu honi behin betiko baja emateagatik, ebazten duena.

01/2016 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 21koa, Excavaciones Peru S.L.-ri jarritako suspentsioa altxatzea, ebazten duena.

### **HIRUGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

ELECTRICIDAD ZIZURKIL	431,89
SOS FIRE	251,20
ICETEC	163,35
LYRECO	147,97
QUISER	439,74
COPY-TEC	13,85
BIDATEK	471,90
GRUPO FRANCIS LEFEBVRE	1.190,24
CORREOS	12,75
IZADI LABORATEGIA	152,94
AUDAX	521,97
AUDAX	193,68
LAU HAIZETARA	5.191,57



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

LAU HAIZETARA	1.206,38
FONTANERIA ANTZIETA	252,74
ANTENAS ADARRA	728,66
TOLOMENDI	150,00
MERKAOIL	464,64
RECAMBIOS IBARRA	5,81
IT INFORMATICA	1.022,45

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **13.013,73** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

#### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **OILATEGITIK AURKEZTURIKO 2015EKO JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Udalak, 2015urtean Oilategitik Elkarteari 2.000 eurotako diru-laguntza eman ziola.

Ikusirik Oilategitik Elkarteak, Alkizako Udalean aurkeztu dituela, 2015. Urteari dagokion gauzatutako ekintzen memoria, bertan gastuen kitapenaren berri ematen delarik, ondorengo izanik:

#### **GASTUAK:**

a)Funtzionamendu gastuak	350,00€
b)Fotomekanika eta inprimaketa	2.486,00€
c)Webgunea ostatsatzea	223,85€
d)Beste gastu batzuk: banaketa	260,00€

**GUZTIRA: 3.319,85€**

#### **SARRERAK:**

a)Alkizako Udala	2.000,00€
b)Foru Aldundia	1.500,00€

**GUZTIRA: 3.500,00€**

Gaia aztertuturik, Udalbatza honek, Jose Maria Aranzabe zinegotziaren abstentzioarekin, 30/1992 Legeak 28. Artikuluak xedatutako kasu batean aurkitzen delako, gehiengoz, ondorengo,



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- Oilategitik Kultur Elkarteak, aurkezturiko 2015. Urteari dagokion gastuen kitapena onestea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

**ALKIZAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO U.E.U. 5.1. UNITATEAN NEKAZALTURISMOARI LOTUTAKO LAU APARTAMENTU TURISKIKOKO ERAIKINAREN LEHEN ERABILERARAKO BAIMENA ETA JARDUERA ETA IREKIERA BAIMENA ESKAERA, A.M.**

Ikusirik A.M. andreak eginiko eskaera, non dioen Alkizako Arau Subsidiarioetako U.E.U. 5.1. Unitatean nekazalturismoari lotutako lau apartamentu turistikoko eraikin bat egiteko obra baimena eman zitzaidala 2011ko azaroaren 22an eginiko Udalbatzarrean, Labayen Arquitectos-ek eginiko exekuzio proiektuaren arabera, 2011ko urriaren 5eko bisatua zena.

Ikusirik, aipaturiko obrak amaitu direla, Udalbatzarrari eraikinaren lehen erabilerarako baimena, jarduera eta irekiera baimena eskaera egiten diot.

Ikusirik, 2016ko urtarrilaren 21ean Udal Aholkulari Teknikoa den, Eba Erkizia Brion arkitektoak eginiko txostenean dioena:

### ***“ALKIZAKO LETE BASERRIKO 4 LANDA APARTAMENTUEN LEHEN ERABILERARAKO BAIMEN ESKERARI TXOSTEN TEKNIKOA***

*A.M.A. anderearen 4 apartamentuen lehen erabilera eta irekitzeko baimena eskaera ikusirik, eta 2016-ko urtarrilaren 21-ean ikuskaritza bisita teknikoa egin ondoren, egindako obra, udal lizentziak eskatzerakoan aurkeztu ziren oinarrizko, eraikitzeko eta jarduerako proiektuei egokitzen zaiola adierazten dut, eta baimena lortzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu direnez, egokia izango da aipaturiko baimena ematea.*

*\*Landa apartamentu turistikoen klasifikazioa eta jarduera Euskal Gobernuako Turismo sailaren esku dago. Jarduerarekin hasteko, bertan erregistratuak egon beharko dira.”*

Gaia aztertutik, bertaratuak, Onintza Gorostidi Murua zinegotziaren abstentzioarekin 30/1992 Legeak 28. artikulua xedatutako kasu batean aurkitzen delako, ondorengo

ERABAKITZEN DUTE



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

LEHENGOA.- Alkizako Arau Subsidiarioetako U.E.U.5.1. Unitatean Nakazalturismoari lotutako lau apartamentu turistikoko eraikinaren Lehen erabilerarako baimena ematea.

BIGARRENGOA.- Alkizako Arau Subsidiarioetako U.E.U.5.1. Unitatean Nakazalturismoari lotutako lau apartamentu turistikoko eraikinaren jarduera baimena ematea.

HIRUGARRENGOA.- Alkizako Arau Subsidiarioetako U.E.U.5.1. Unitatean Nakazalturismoari lotutako lau apartamentu turistikoko eraikinaren irekiera baimena ematea.

LAUGARRENGOA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

BOSTGARRENGOA.- Erabaki hauen berri A.M. andreari ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.45 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*